

HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2022 ARTES ESCÉNICAS URRETXU-ZUMARRAGA

Data zehaztekotan
Fecha a concretar


KUI KUI

**Pirritx, Porrotx eta
Marimotots**

70 min – 0-100 urte

Amalurrak txoriek bezala ikusten eta begiratzen lagunduko die Pirritxi eta Porrotxi. Ikusiko ditugu plastikoz betetako itsasoak, Txo Mikmak txikiaren, balearen eta urpean hegan dabilen pingüinoaren begietatik. Ikusiko dugu Tider migrantea, Afrikatik Baionara iritsi nahi. Eta jaioko da txitakolorea, Kuikui, munduari kolorea eta adorea emango diona.

Amalurra ayudará a Pirritx y Porrotx a ver y mirar como pájaros. Veremos mares llenos de plástico a través de los ojos del pequeño Txo Mikmak, la ballena y el pingüino que vuela bajo el agua. Veremos al migrante Tider, que quiere llegar a Bayona desde África. Y nacerá el polluelo, Kuikui, que dará color y coraje al mundo.



Otsailak 13 febrero


KOTONDARRAK

Anita Maravillas

50 min - + 5 urte / años

Sorterriko arriskuak atzean utzita, Koton familia hirira abiatuko da bizitza eta aukera berrien bila. Hiriko teilatu, argien eta lantegiko makina eta oihalen artean, amak eta bi alabek abentura berriak eta arrisku ezezagunak biziko dituzte. Baina, oraingoan, ez daude bakarrik eta gogor ekingo diote zoriontsu izateko nahiari.

Dejando atrás los peligros de su pueblo natal, la familia Cotton se dirige a la ciudad en busca de nuevas vidas y oportunidades. Entre los tejados y las luces de la ciudad, entre las telas, los hilos y las máquinas de la fábrica, la madre y sus dos hijas vivirán nuevas aventuras y peligros desconocidos. Pero, esta vez, no están solas y se lanzarán con fuerza al deseo de ser felices.



HAURRENTZAKO IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2022 ARTES ESCÉNICAS URRETXU-ZUMARRAGA

Martxoak 20 marzo

TEMPUS

EQM

60 min - + 5 urte / años

Klausek bere erloju-denda bisitatzena gonbidatzen gaitu, bitxia bada ere denbora gelditu dela dirudien espazioa. Gaur egun ez dugu ezertarako astirik. Denbora falta zaigu. Eta gehiago bagenu, gehiago nahiko genuke. Denbora hila eskatu beharko genuke eta denbora nola pasatzen den begiratzera eseri. Hau denbora galtzea edo denboraz gozatzea da?

Klaus nos invita a visitar su relojería, un espacio donde curiosamente parece haberse detenido el tiempo. Hoy en día no tenemos tiempo de nada. Nos falta tiempo. Y si tuviéramos más, más querriámos. Deberíamos pedir un tiempo muerto y sentarnos a mirar cómo pasa el tiempo. ¿Esto es perder el tiempo o disfrutar del tiempo?



Apirilak 10 abril

ALEJOP!

Ekain pailazoa

45 min – 0-100 urte

Alejop! 5-99 urte arteko publikoari zuzendutako pailazo klasiko, jolasti baten bakarkako ikuskizuna da. Inprobisazioak garrantzia handia du ikuskizun honetan. Bertan, Ekainekin dibertitu eta bere trikimailu, bihurrikeria eta malabarez gozatu ahal izango dute ikusleek.

Alejop! Se trata de un espectáculo en solitario de un payaso clásico, juguetón, dirigido a un público de entre 5 y 99 años. La improvisación tiene gran protagonismo en este espectáculo. Allí, los espectadores podrán divertirse con Ekain y disfrutar de sus trucos, travesuras y malabares.



Urriak 16
octubre
ÚNIKO
Teatro Paraíso

60 min - + 5 urte / años

Paul seme bakarra da, bere etxeko erregea, alegia. Irati arrebaren jaiotzaren ondorioz, maitea izateari uzteko beldur handia izango du, eta horrek familiaren egonkortasuna mehatxatuko du.Paul, gurasoak, arreba Irati, amona, Paulen andereñoa, eta Richi (Paulen hartz-peluxea, bere kontzientziaren alter ego) igaroko dira antzeztokitik, familiako ikuskizuna eratuz.

Paul es hijo único y el rey de su casa. El nacimiento de su hermana Irati provocará que un miedo íntimo a dejar de ser querido se apodere de él amenazando la estabilidad familiar. Por el escenario haremos desfilar a Paul, a sus padres, a su hermana Irati, a su abuela, a la maestra de Paul y a Richi -su oso de peluche y alter ego de su conciencia-, con la voluntad de hacer un espectáculo familiar.



Azaroak 13
noviembre
REZIKLATE
Turukutupa

45 min – 0-100 urte

“Reziklate!” lana kontzertu familiarra da, eta bertan munduko hainbat musika aurkeztuko dira, hala nola Euskal Herriko, Afrikakoa, Latinakoa, Iberiakoa eta abar. Emanaldia musika-pedagogia eta hondakin-materialak musika tresnak egiteko birziklatzea uztartzen dituen proiektua da.

El espectáculo “Reziklate!” es un concierto familiar a dúo donde se presentan diferentes músicas del mundo como la vasca, africana, latina, ibérica, etc. y en el que los instrumentos son todos elaborados a partir de la reutilización y recuperación de residuos.



Abenduak 4 diciembre


TARTALO

Logela multimedia

45 min – 0-100 urte

Tartalo modian bizi den ziklopea da, gazta goxoak egiteko sekretua duena. Herrian beldur diote, gizakiak panpina bihurtzen omen dituelako. Egun batean, Matilde artzain ausartak, gazta lortzeko ardiak sakrifiku beharraz nekatuta, bere sekretua ezagutzen abiatzen da. Gauza harrigarriak gertatzen diren kobazulo batera iritsiko da. Bertan Tartalo jentila bizi da. Matildek benetako Tortaloren onginahia ezagutuko du. Tartalo ez da munstro bat, Tartalo desberdina da.

Tártalo es un cíclope que vive en el monte y que posee el secreto de cómo hacer ricos quesos. En el pueblo le temen porque dicen que convierte a los humanos en muñecos. Un día, la valiente pastora Matilde, cansada de tener que sacrificar sus ovejas para conseguir el queso, se lanza a conocer su secreto. Llegará a una cueva donde ocurren cosas sorprendentes. En ella vive el gentil Tártalo. Matilde conocerá el carácter benévolo del verdadero Tártalo. Y es que Tártalo no es un monstruo, Tártalo es diferente.



Sarrerak

Labeagako emanaldiak

17:00

5 €

Ederrena pilotalekukoak

16:30 eta 18:30

7 €

Zazpi ikuskizunerako bonoa:

- haurra + heldua: 30 €
- haurra: 20 €
- Pirritx, Porrotx eta Marimototsen 16:30 saiorako balio du / vale para la sesión de las 16:30

Bonuak

SALGAI urtarrilaren 13tik aurrera:

- Urtarrilaren 13tik otsailaren 11ra
Aizpurunea kultur etxearen:
 - Astelehenetik ostiralera:
11:00 – 13:00 / 17:00 – 19:00
 - larunbatetan: 11:00 – 13:00
- Otsailaren 13an eta martxoaren 20an:
Labeaga aretoan emanaldi egunetan



**HAURRENTZAKO
IKUSKIZUN ESZENIKOAK 2022**

**ARTES ESCÉNICAS
URRETXU-ZUMARRAGA**

